



# EUSKAL CURRICULUMA

## ALDARRIKATU, BORROKATU, ERAIKI

### WIKILIBURUAK eta EUSKAL CURRICULUMA

---

Euskal Curriculumaren eraikuntzan aurrerapausoak emateko garaia da. Urteak dira proiektu hau aldarrikatzen eta borrokatzen egon garela baina orain herritar guztien esku dago berau aurrera eramatea eta eraikitzea. Hau nola egin daitekeen beste arazo bat da, ordea. Nondik hasi? Auzolana egin daiteke? Nola partekatu bakoitzak egiten duen lana?

Iaz Kurasaalean egin zen ekitaldian Euskal Curriculumua aurkeztu eta jendartearen esku bere garapena utzi zenean EC Oinarrizkoa, Espezifikoa eta Komuna “Wikiliburuak” izeneko proiektuan zegoela esan zen. Wikiliburuak Wikipediaren antzeko proiektu bat da (berez proiektuen jatorria bera da). Teknologia eta hizkuntza berri bat erabiliz modu erraz batean talde-lanak eraikitzeke aukera ematen du eta, beraz, auzolanean proiektuak eraikitzeke aukera ere. Aukera hau baliatu dezakegu, beraz, eskolaz eskola egiten direnak eta bakoitzak duen jakintza guztion artean partekatzeko. Azken finean “herri jakintza nahi dugu eta jakintza herriarentzat nahi” leloaren adierazle ezin-hobea da.

#### Zer da Wikiliburuak?

Wikiliburuak MediaWiki fundazioak sorturiko proiektua da. 2003ko uztailaren 10ean sortu zen eta gaur egun 121 hizkuntzatan aurki daiteke itzulia. Hala ere 50etan daude 100 liburu edo atal baino gehiago idatzita. Ingeleraz 34.142 atal idatzi dituzte (2009/01/29) eta hainbat liburu osorik ere aurki daitezke. Liburu guzti hauek berriak dira, hau da, ez dira dagoeneko baden liburu baten kopiak. Horretarako (adibidez, Axularren Gero igotzeko, honek lizentzia librekoa duela) Wikisource proiektua erabiltzen baita.

Wikiliburuak bitartez, beraz, lankide ezberdinek auzolanean gai bat hartu eta liburu bat idazten dute (edo lankide bakar batek, ere, noski!).

#### Nola erabiltzen da?

Wikiliburuak erabiltzeko bi gauza behar dira: bertara sartu eta izena ematea, lehenik eta behin eta Wiki hizkuntza erabiltzen jakitea ondoren. Lehenengoa bigarrena baino errazagoa da, noski, baina biak-alabak denbora labur batean egin daitezke.

Izena emateko nahikoa da <http://eu.wikibooks.org> helbidera joatea eta goian eskubian dagoen *Saioa hasi/Kontua sortu* loturari ematea. Izen edo ezizen bat, pasahitz bat eta e-mail bat baino ez digute eskatuko. Horrekin berez nahikoa da gure ekarpenak egiten hasteko.

Bigarrena egiteak Wiki hizkuntzarekin lana egitea eskatzen du. Hizkuntza hau ez da berez edozein testu prozesadoretan (OpenOffice, Word...) erabiltzen dugunean idaztea baino zailagoa. Baina badira ikasi beharreko arautxo batzuk. Nahi izanez gero <http://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Tutorial> orrialdean daude honen inguruko datu gehiago eta forgak egiteko aukera ere <http://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Proba%20orria> orrialdean.

Hala ere Wikiliburuak badu ezberdintasun bat Wikipediarekin alderatuta. Wikipedian orrialde solteak egiten dira, nolabait kontzeptu bakoitzarentzat definizio bat. Hauek luzeak edo motzak izan daitezke, noski, eta artikulua bildumak egin daitezke. Baina Wikiliburuak funtzio nagusia bilduma horiek egitea da. Hau da, gerta daiteke, eta hala da, gainera, euskarazko Wikipedian Euskal Herriko historiaren inguruko artikulua egotea. Eta nahikoa hedatua bada Wikiliburuak ere lekua badu. Baina hori ez da



normalena. Wikiliburuak, beraz, artikulua edo atal-sortak biltzeko metodo bat da.

Erabiltzen ikasteko errazena hastea denez nahi duenak goiko bi pauso horiek jarraitu eta lanean has daiteke.

### **Nola garatu dezaket Euskal Curriculumua Wikiliburuak erabilia?**

Euskal Curriculum espezifikoa, oinarrizkoa eta komuna Wikiliburuak dago eskegita [http://eu.wikibooks.org/wiki/Euskal\\_Curriculumua](http://eu.wikibooks.org/wiki/Euskal_Curriculumua) helbidean. Baina irakurtzen hasita berehala ikusten da hori txosten teknikoak direla, ez eskolan erabiltzeko moduko testu-liburuak. Orain lana da bertan agertzen diren eduki, konpetentzia eta baloreen garapena ematea. Horretarako lan handia egin behar da, azken finean ikasgai bakoitzean 13 mailatan erabilgarriak diren testu-liburuak behar baitira.

Har dezagun adibide bat. Gizarte Zientzien atalean oinarrizko dokumentu bat ([http://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Gizarte\\_Zientziak.pdf](http://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Gizarte_Zientziak.pdf)) eta espezifikoa, oinarrizko eta komuna aurkituko duzu ([http://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Gizarte\\_zientziak\\_\(Espezifikoa\).pdf](http://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Gizarte_zientziak_(Espezifikoa).pdf)). Lehenengoan ikasgaia antolatzeke parametro nagusiak ematen dira eta bigarrengoan zehazki zein konpetentzia eskuratu behar diren. Konpetentzia horiek eskuratzeko hainbat galderari erantzutea eskatzen da eta horietako bakoitzak bere gaitegia du. Galdera horietako bat [Nondik gatoz? Euskal Herriaren bilakaera historikoa Europan eta Munduan](#) da. Klik egiten badugu Historiako gaitegi oso baten izenburuak aurkituko ditugu. Gakoa horietako bakoitza garatzen joatea da, beraz. Adibidez gaitegi horretako 4.1 atala *“Leben mundu gerra eta baren ondorioak Ipar Euskal Herrian”* da. Gai horren garapena wikiliburu baten atal oso bat izango litzateke. Eta horrela agertzen diren atal guztiekin eta arloz-arlo dagoen guztiarekin.

Ez da lan makala, noski. Lan hau egiteko orduak eta orduak behar dira. Baina herri honek horrelako lanei ekin dionean lorut dugu. Azken finean orain arte eginiko guztiak ere lan eskergea suposatu du; edo ikastolen sorrerak; edo UEU sortzea; edo Euskal Unibertsitatea garatzeko beharrezko pausoak ematea; edo eskola publikoetan D ereduak ikasi ahal izatea; edo ikasle mugimendu sendo bat eratzea; edo helduen alfabetatzeko metodoak sortzea... Euskaldunok zerbait erakutsi badugu AUZOLANaren bitartez erronka txiki ez dagoela da.

### **Euskal Herriak Bere Eskolaren deialdia**

Euskal Herriak Bere Eskolak Euskal Curriculumua aldarrikatu, borrokatu eta eraiki behar dela dio. Hirurak ala hirurak dira garrantzitsuak eta askotan deitu izan dugu (oraindik-orain egiten dugu) aldarrikatu edo borrokatzera. Oraingo honetan lan horrez gain Euskal Curriculumua eraikitza ere deitu nahi dugu. Horretarako ikastetxez ikastetxe, fakultatez fakultate eta herriz herri jakintza antolatu eta guztion esku jarri behar dugu.

Guztion artean, auzolanean, posible da!

Euskal Curriculumua eraikitzea posible da!

Euskal Herriak Euskal Curriculumua!

Euskal Herriak Bere Eskola

2009ko urtarrilaren 21a

